



**Albisteen eta informazioaren Euskal Kanala**

Zer da eitb24?

Web -mapa

Hasierako orri bihurtu



EGURALDIA BURTSA LOTERIAK FARMAZIAK WEBCAM ZINEMA-ARETOAK FOROAK

LEHEN ORRIA

**GEHIAGO JAKIN NAHI?**

- Albisteen bilatzailea
- Kirolak
- Berriak argazkitan
- Gaur hemen
- Euskaldunak munduan

**ATALAK**

- Eguneko titularrak
- Politika
- Gizartea
- Kultura
- Kalez kale
- Mundua
- Enpresa
- Ekonomia
- Teknologia berriak

**ZABALGUNEA**

- Telebistan ikusienak
- Komunikazioa
- Albiste izango da
- Lehen orrialdeak
- Egunkarietan nagusi
- Euskaldunak hedabideetan
- Beste iritzi batzuk

Bidali deialdiak, berriak, iradokizunak,...

**TEKNOLOGIA BERRIAK**



2005/03/31 - 04:27

**Internet bidezko www.euskaraz.tv telebistak 100.000 bisita baino gehiago izan ditu bere lehen urtean**  
**Bernardo Atxagak egindako "Leku bikoitzak" hitzaldia izan da euskal nabigatzaileek gehien eskatutako emanaldia.**

www.euskaraz.tv Internet bidez emititzen duen lehenengo telebista euskaldunak 2004ko martxoaren 30ean hasi zituen bere emanaldiak. Urtebete honetan, bost kanal tematikoetan (albisteak, hitzaldiak, erakusketak, turismoa eta zabalik) 1.400 ordu inguru emititu ditu eta webguneak 100.000 bisita baino gehiago izan ditu.

Proyección Taldeko iturriek prentsa-ohar bidez atzo jakinarazi zuten, bost kanaletako emanaldi guztien artean 15.000 ordu inguru ikusi eta entzun dituzte bisitariak, eta Bernardo Atxagak egindako "Leku bikoitzak" hitzaldia izan da euskal nabigatzaileek gehien eskatutako emanaldia.

Proyección Taldea da www.euskaraz.tv telebistaren sustatzailea, eta enpresa bilbotar hau izan zen ere www.proyeccion.tv proiektua martxan jarri zuena (Estatu zein Euskal Herri mailan Internetetik ikus-entzunezko edukiak emititu zituen lehen telebista).

www.euskaraz.tv telebistak egin duen lehen urtean, eskaintza informatibo berezi moduan eta euskal komunikabideen osagarri bezala sendotu da, eta bi izan dira eragile nagusiak: informazioaren teknologia berriak erabiltzea eta edukiak osorik emititzea.

**Hemendik aurrerako helburuak**

Azken urtean proiektua martxan jarri eta garatu ondoren, hemendik aurrera hainbat helburu aurreikusi dira: audientzia handitzea, ekitaldi informatibo gehiago lantzea, geografia esparrua handitzea, eduki propioak sortzea eta seigarren kanal bat sortzea; seigarren kanal honen helburua, kongresuak, jardunaldiak eta mintegiak emititzea izango da, betiere euskararen inguruan garatutakoak.

Martxan jartzean, Bizkaiko Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailen babesa jaso zuen arren, www.euskaraz.tv oraindik ere hedabide fizitarioa da. Zentzu honetan, doakotasunak dakarren zama autofinantzazioaren bidez gainditu nahi du proyección Taldeak, instituzio, erakunde eta enpresen euskarazko insertzioak eta publizitate kanpainak lortuz eta Internet bidezko ikus-entzunezko zerbitzuak eskainiz, kontuan hartuz azken sektore honetan Euskaltzaindia bezalako bezeroak lortu dituela.



**BESTE ALB**

**EUSKALDU**

Renoko Eus dolar bildu r

**KALEZ KAL**

DURANGO-oroimenak l geroago

**KOMUNIKA**

EITBK haute zabala egin irratikate e

**POLITIKA**

Dena prest hauteskund jartzeko

**GIZARTEA**

Lurrean bizi duten natur kaltetuta da

**KULTURA**

Zinema eta dituzte Biar jaialdian

**MUNDUA**

Mazenek at kontra atak atxilotzeko

**ENPRESA**

Tknika inau erreferentzi Lanbide Hez

**EKONOMIA**

EAEko etxel zeuden 200

**KIROLAK**

TAU CERAM Euroligako 1 saikatu dir: ostean

**TEKNOLOC**

**BITXIKERI.**

Agure bati i

Inprimatu Lagunari bidali

albiste gehiago: **TEKNOLOGIA BERRIAK**

Albistearen gaineko iritzia eman

etxe ondok  
kexatzeurre

© EITB24 - 2005